

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko-jarduera arazoei konponbidea ematea izango da. Kasu honetan, zailtasun-ekonomikoak dituzten pertsonei eskaini nahi diegu laguntza; bestalde, kutsaduraren alorrean Koronabirusak sortuko dituen arazoak konpondu nahi ditugu.

Aliantzak sortzea funtsezko jardueren barne sartu beharko genuke. Proiektuak arrakasta izan dezan Administrazio Publikoaren laguntza jasotzea berebiziko garrantzia du, finantzaketa lortzeko, publizitatea egin ahal izateko etab.

Ekintza desberdinak burutuko ditugu: edukiontziei buruzko publizitate-orriak banatuko ditugu, herritarrei gure zerbitzuaren berri emateko, eta musukoen garrantziari buruzko kontzientziazio hitzaldiak emango dizkiegu. Bestalde, bezeroekiko harremanen kudeaketan arituko gara: edukiontziei buruzko informazioa, zalantzak edo gomendioak argituko ditugu.

Azkenik, edukiontzien kontrola eramango dugu: zenbat musuko behar diren, prezioa eta neurriei buruzko informazioa bilduko dugu; biltegiko stockaren kontrola eta kudeaketa eramango dugu, hornitzaileekin harremanetan jarriko gara...

